

SISTEMA DOMOTIKOEN INSTALATZAILEA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Eraikinetan sistema domotikoak jartzeko gaituak dauden profesional edo enpresak, hau da, sistema teknologiko integratuek emandako zerbitzuen multzoa, hau izanik segurtasun, komunikazio, energi kudeaketa eta erosotasuneko oinarritzko premiak asetzeko biderik onena.

MERKATU-DATUAK

Domotika diziplina teknologikoa da, era guztietako eraikinei aplikatua: etxebizitza, enpresa, prestakuntza-zentro, kirol eta kultur instalazio, ospitale edo erakin publiko eta abarri segurtasuna, erosotasuna, multimedia-zerbitzuak eta energi aurrezte gehitu ahal izateko. eNeo Labs-ek egindako “El Libro Blanco del Hogar Conectado” azterketaren arabera, domotikaren sektoreak 1.200 milioi euroko negozio-kopurua zertuko du 2005. urtean Espainian. Nabarmentzen du Espainian 600.000 familia baino gehiago daudela konektatuta linea digital asimetrico (ADSL), zifra hori 4 milioikoa izango delarik 2005ean; aldi berean, gero eta gehiago eskatzen dira segurtasun-sistemak, 300.000 alarma baino gehiago daudelarik, eta 2,5 milioi lagun plataforma digitaletara abonatuta. Aurreikuspenik kontserbatzaileen kalkulatu dutenez, 10 familietatik 1ek gutxienez bere etxebizitza konektatuta izango du, eta hasteko batezbesteko inbertsioa etxebizitzaren prezioaren %1 ingurukoa izango da.

Etxetresna elektrikoaren hainbat egilek dagoeneko gailu adimendunak aurkezten dituzte, internet-era konektatuta, aldi berean beren artean konekta daitezkeelarik sare lokal batean etxebizitza barruan.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Produktua*

Sistema domotikoez hornitzeko gaitasuna duen instalatzaileak ezagutu eta menperatzen ditu linea elektrikoaren bidez kontrol-seinaleen transmisioarekin zerikusia duten alderdiak. Hainbat gailu-eredu instalatzeko gai izan beharko luke aparatuak eta sistemak urrutitik kontrolatzeko. Ordenagailu bidez, alarma-zentral batekin konektaturik egon daiteke etxebizitza, TB-ko zirkuitu itxia erabili, etxebizitza kanpotik monitorizatu (ateak ireki eta itxi, etxetresna elektrikoak piztu...). Produktuen ugaritasuna handia da, nahiz eta funtsean bi tipologiatan banatu: sentsoak eta aktuadoreak. Lehenengoek kontrolatu nahi diren parametroen egoera ezagutzeko balio dute, eta aktuadoreak sistemak erabiltzen dituen elementu batzuk dira, nahi den horretan eragin eta aldatzeko.

□ *Sustapena*

Etxebizitzaren eraikuntzan diharduten sustatzaile eta enprekin kontaktuak eta harremanak izan behar dira. Garrantzitsua da hedatzen ari diren hiriguneak aprobetxatzea, etxebizitza berrien ehuneko garrantzitsua baita leku horietan negozioa ezagutarazteko. Eraikinak zaharberritzeko programa publikoetan ere sartzen dira sistema domotikoak.

Plan Operatiboa

□ *Lokala*

Batez ere, instalazioarekin eta mantentzearekin zerikusia duten eginkizunak direnez, industrialdeetan kokatzea da gomendagarriena, lantegia eta material-biltegia jartzeko lekuarekin.

□ *Ekipamendua*

Emango den zerbitzuaren izaera integralaren eta espezializatuaren arabera egongo da. Merkatuak homologaturiko informatika-ekipamendua eta aparatuen biltzea komeni da.

Giza baliabideen plana

Domotikarekin zerikusia duen enpresa-proiektu bat abian jartzen dutenak gailu elektrikoaren instalazio eta mantentze buruzko jakintza gain, informatika-sistema eta sareen kudeaketa-jakintza ere izatea komeni litzateke. Erdi-mailako unibertsitate-titulazioa: ingeniariak litzateke egokiena. Lanbide-heziketarekin ere lor daiteke beharrezko jakintza.

Inbertsio-plana

Hasierako inbertsioa 40.000 € ingurukoa izan daiteke. Negozioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea. Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

<http://www.lanbide.net>

Intereseko beste datu batzuk

Informazioa: Domotika kontzeptu berria denez, erabiltzaile posibleen prestakuntza laguntzea garrantzitsua litzateke. Etxetresna elektrikoaren egile batzuek badituzte gailuak urrutitik konexioa eta kontrola egiteko gaitasunarekin. Internet etxebizitzetan sartzeak etxean aplikazio berrietarako ateak zabaltzen ditu.

Prestakuntza: Arlo honetan arrakasta duten ekintzaileek gaia ongi aztertze edo esperientzia izateko aholkua ematen dute, etengabeko prestakuntza-ikastaroak egiteko,

arlo honetan aurrerapen teknologikoak gero eta bizkorragoak baitira, eta espezializatzeko. Domotikan masterrak ere badaude dagoeneko.

Administrazio-izapideak

- *Izapide orokorrak*

IAE: 5041

CNAE: 4531 (instalazio elektrikoak), 4030 (lurruna eta ur beroa ekoitzi eta banatzea)

- *Izapide espezifikoak*

Instalatzaile-baimena lortzea eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Departamentuak baimendutako Instalatzaileen Erregistroan izena ematea.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

- *Konponbide integratuak eskaintzea: segurtasuna, erosotasuna*

Gaur egun atalik garrantzitsuena eta eskaera handienekoa segurtasunarena da. Etxebizitza domotikoan, sentsoreak eta detektoreak baldin badaude instalatuta, sarkinak daudenean ohartarazi egiten dute, baita urrutira ere, erabiltzaileak bere telefono mugikorrean jasotzen dituen ahots-mezuen edo posta elektronikoaren bidez. Eskaera hau erosotasun-soluzioekin elkartzea sistema domotikoak jartzera bultzatzeko faktore bat izan daiteke.

- *Higiezinaren sustatzaileekin itunak egitea*

Obran aurreinstalazioen —gero etxebizitzaren kudeaketa integratua ahalbidetuko dutenen— kostua ez da garestia edo dezente merkeagoa behintzat etxebizitza eraiki eta gero jartzea baino. Beraz, interesgarria litzateke instalatzailearentzat zerbitzu hori hitzartzea higiezinaren sustatzaileekin, hauek prestazio gehiagoko etxebizitzak eskaini nahi badituzte, kostua igo beharrik gabe. Arlo honetako espezialisten arabera, kostua %0,3 eta %3 arte igotzen da erabiltzailearentzat.

HELBIDE INTERESGARRIAK

<http://www.cedom.org>

<http://www.domotica.net>

<http://www.domoticaviva.com>

<http://www.domointel.com>

<http://www.fagor.com/es/domotica/index.html>

<http://www.casadomo.com>

<http://www.urbaniza.com>